

LAN-MERKATUAREN BALANTZEA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA



Hirugarren Hiruhilekoa 2019

Erakunde autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES

 Lanbide

Txosten honek, 2019ko hirugarren hiruhilekoan, Euskal Autonomia Erkidegoan lan-merkatuak izandako joera aztertzen du, aldagai nagusien analisiaren bitartez. Horretarako, lan-merkatuari zuzenki lotutako aldagaiez gain (erregistratutako langabezia, afiliazioa Gizarte Segurantzaren eta kontratuen erregistroa), lan merkatuaren arloan biztanleria neurtzera bideratuta dauden estatistika operazio nagusiak hartu dira kontuan (Euskal Estatistika Erakundearen “Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkesta”, BJA).

Edukia


Testuinguru Ekonomikoa	4
Lanbiden erregistratutako langabezia	5
Afiliazioa Gizarte Segurantzaren	6
Kontratututako pertsonak eta kontratuak.....	7
Okupazioa eta Langabezia, Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkestaren arabera (BJA)	8

Testuinguru Ekonomikoa

2019ko hirugarren hiruhilekoan, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Barne Produktu Gordinak (BPG) urte arteko %2,0ko hazkundea izan du; 2019 urte osoari dagokionez %2,2ko hazkundea aurreikusten da

Eustatek argitaratutako kontu ekonomikoen aurrerapenaren arabera, EAEko ekonomia %2,0 hazi zen 2019ko hirugarren hiruhilekoan. Kopuru hori aurreko bi aldietan erregistratutakoa baino bi hamarren txikiagoa da, eta pentsatzekoa da 2018ko lehen erditik aurrera izan duen dezelerazio bideari ekin diola berriz ere. Hala eta guztiz ere, hazkunde erritmo esanguratsua izaten jarraitzen du, bereziki kontuan hartzen badugu Europako ekonomia handietako batzuk atzeraldian daudela edo ia hutsala den hazkundearen dutela. Hiruhileko arteko aldakuntzari dagokionez, igoera %0,4koa izan zen; kasu horretan ere, aurreko bi hiruhilekoetan lortutakoa baino bi hamarren txikiagoa.

Eustatek argitaratutako datuak Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren aurreikuspenaren azpitik daude; izan ere, urte arteko BPGaren aldakuntza tasa %2,2koa eta hiruhileko arteko %0,5koa izango zela aurreikusten zuen. Aitzitik, kontu ekonomikoek egiten duten enpleguaren estimazioa Ekonomia Zuzendaritzaren aurreikuspena baino mesedegarriagoa da.




Iturriak: Eustat, EIN, Eurostat, "Koiuntura DI-DA batean 2019ko azaroa" txostena

Europako Ekonomiari dagokionez, Eurostatek argitaratu dituen azken datuek adierazten dute Eurogunea %1,1 hazi zela 2019ko hirugarren hiruhilekoan (aurreko hiruhilekoan baino 0,1 puntu gutxiago).

Espainiako Ekonomia %2,0 hazi zen 2019ko hirugarren hiruhilekoan (aurreko hiruhilekoaren hazkunde tasa berbera).

Etorkizunerako aurreikuspenen arabera, hazkunde ekonomikoaren moteltze arin bat aurreikusten da 2019 urte osorako, 2018 urtean erregistratutako datuekin alderatuta. Hurrengo taulan ikus daitekeen bezala, Consensus Forecast-ek 2019 urterako Eurogunerako egingdako aurreikuspena %1,1koa da, eta Nazioarteko Diru Funttsak (NDF) Espainiarako egingdako aurreikuspena %2,3koa.

Euskadiri dagokionez, Ogasun eta Ekonomia Saileko Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak %2,2ko hazkunde aurreikusten du 2019 urterako eta %2,0koa 2020 urterako.




Iturriak: Eustat, EIN, Eurostat, Ogasun eta Ekonomia Saila: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza, NDF, Consensus Forecast, "Koiuntura DI-DA batean 2019ko azaroa" txostena

Lanbiden erregistratutako langabezia

Lanbiden erregistratutako langabe kopuruak hiruhileko arteko %2,1eko igoera izan du urteko hirugarren hiruhilekoan; +1.320 gizonezko eta +971 emakume

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Lanbideko bulegoetan erregistratutako **langabe kopurua** igo egin da 2019ko hirugarren hiruhilekoan (2.291 pertsona gehiago); guztira erregistratutako langabe kopurua 113.634 pertsonakoa izan da. Hiruhileko arteko igoera %2,1ekoa izan da eta urte arteko jaitsiera %7,6koa.




Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Sexuari dagokionez, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Lanbiden erregistratutako langabe kopurua 1.320 pertsonatan igo da gizonezkoen artean eta 971 pertsonatan emakumezkoen artean. Gizonezkoen kasuan, erregistratutako langabe kopurua 48.154 pertsonatan kokatu da eta 65.480 pertsonatan emakumezkoen kasuan.

Adinari dagokionez, langabetu kopuruaren igoerarik handiena, balore absolutuetan eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, 25-34 urte bitarteko segmentuan gertatu da (+1.307); ondoren, 16-24 urte bitartekoaren artean (+560); 35-44 adin tartean (+216); 55-64 adin tartean (+149) eta 45-54 adin tartean (+59).

Lurralde Historikoei dagokionez, balore erlatiboetan, Gipuzkoa izan da langabetu kopuruan igoerarik handiena izan duen lurraldea aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (+%3,2; +917). Ondoren, Araba (+%1,7; +321) eta Bizkaia (+%1,6; +1.053).



Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Jatorriari dagokionez, balore erlatiboetan, Lanbiden erregistratutako langabetu atzeritarren kopurua %1,0 jaitsi da eta bertako langabetu kopurua %2,6an igo da, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta. Lehengo kasuan langabetu kopurua 17.360 pertsonatan kokatu da eta bigarren kasuan 96.274 pertsonatan.


Ikasketa-mailaren arabera, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Unibertsitate ikasketak dituzten langabeak %12,4an igo dira; jarraian Lanbide Heziketa eta Batxilergoko ikasketak dituzten langabeak (+%3,3 eta +%3,1, hurrenez hurren). Langabezian dauden pertsona kopuruan beheraka izan duen talde bakarra, Derrigorrezko ikasketak dituzten langabeena izan da (-%0,5).

Jarduera Ekonomikoari dagokionez, hiruhileko honetan, balore absolutuetan, langabetu kopuruan igoerarik handiena izan duen sektoreak hurrengoak izan dira: (i) Hezkuntza (+693); (ii) Enpleguarekin lotutako jarduerak (+270); eta (iii) Txikizkako merkataritza (+249). Bestalde, aipatu beharra dago langabetu kopuruan jaitsierarik handiena izan duen sektorea Nekazaritza eta Abeltzaintza izan dela (-221).

Afiliazioa Gizarte Segurantzari


Gizarte Segurantzako afiliatu kopurua 961.582 pertsonakoa izan da, aurreko hiruhilekoan baino %1,2 baxuagoa

EAEn 2019ko hirugarren hiruhilekoan, Gizarte Segurantzako afiliatu kopurua 961.582 pertsonakoa izan da: aurreko hiruhilekoan baino %1,2 gutxiago eta aurreko urteko hiruhileko berdinean baino %2,3 gehiago.



Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa

Sexuari dagokionez, afiliatu kopurua egonkor mantendu da aztertutako azken bost hiruhilekoetan. Hurrengo taulan azaltzen den bezala, afiliatu kopuruaren %53a gizonezkoak dira eta %47a emakumezkoak.



Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa

Lurralde Historikoei dagokienaz, afiliazio kopuru handiena Bizkaian izan da (%50,0). Gipuzkoan, %33,6koa izan da eta Araban %16,3koa. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Bizkaian 6.178 pertsonatan jaitsi da afiliatu kopurua; ondoren Araba (-3.087) eta Gipuzkoa (-2.570).


Jarduera Ekonomikoen atalei dagokienaz, hiruhilekoaren azken hileko batez besteko datuen arabera, hirugarren hiruhilekoan afiliatu gehien izan dituzten jarduerak atalak hurrengoak izan dira: (i) Manufaktura industria (%18,3); (ii) Handizkako eta txikizkako merkataritza, motozikleta eta ibilgailu motordunen konponketa (%14,4); (iii) Osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak (%11,1); (iv) Administrazio Zerbitzuak eta Zerbitzu Osagarria (%7,1); eta (v) Hostalaritza (%6,9). 2019ko hirugarren hiruhileko datuak aurreko hiruhileko datuekin alderatuta, afiliatu kopuruan jaitsiera handiena izan duten jarduerak atalak hurrengoak izan dira: (i) Hezkuntza (-9.068); (ii) Manufaktura industria (-1.602) eta (iii) Arte, jolas eta entretenimendu jarduerak (-991). Afiliatu kopuruan igoerarik handiena izan duen jarduerak atala Osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuena izan da (+4.501).

Jatorriari dagokionez, hiruhilekoaren azken hileko batez besteko datuen arabera, Gizarte Segurantzara batu diren atzeritarren kopurua %1,5 igo da aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, kopurua guztira 68.972 pertsonatan kokaturik. Afiliatu guztien artean, talde honen pisua %7,2koa da, afiliatu autoktonoena %92,8koa izanik. Atzeritarren artean, gizonezkoen afiliazioa %0,7 igo da eta emakumezkoen afiliazioa %2,5. Lurralde Historikoei dagokienaz, atzeritarren afiliazioa Gipuzkoan eta Bizkaian igo egin da (+%2,8 eta +%1,9, hurrenez hurren). Araba izan da atzeritarren afiliazio kopuruan jaitsiera izan duen Lurralde Historiko bakarra (-%1,8).

Kontratututako pertsonak eta kontratuak

Hirugarren hiruhilekoan kontraturen bat sinatu duen pertsona kopurua %7,0 igo da eta sinatutako kontratu kopurua guztira 259.560koa izan da

2019ko hirugarren hiruhilekoan EAEn **kontraturen bat sinatu duen pertsona kopurua** guztira 136.201ekoa izan da, aurreko hiruhilekoan baino %7,0 gehiago. Sexu-ari dagokionez, gizonezkoen artean %3,3ko igoera eman da eta emakumezkoen artean %11,1ekoa.



Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa


Ikasketa-mailaren arabera, kontratatutako pertsonen %43,9k Derrigorrezko ikasketak ditu, %22,9k Batxilergo ikasketak, %17,1ek Unibertsitate ikasketak eta %15,5ek Lanbide Heziketako ikasketak.

Adinari dagokionez, 2019ko hirugarren hiruhilekoan kontratatutako pertsona kopuruaren artean, 25-34 urte bitarteko pertsona taldea nabarmendu da, %27,4ko pisuarekin. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, aztertutako talde guztiek izan dute igoera kontratatutako pertsona kopuruari dagokionez, 25 urte baino gutxiagoko taldea nabarmenduz (+%11,8).

Jatorriari dagokionez, kontratatutako pertsonen %84,1a bertakoa da eta %15,9k atzerriko nazionalitatea du (aurreko hiruhilekoan baino 0,9 puntu gehiago). Atzeritarren artean, nazionalitate nabarmenenak hurrengoak dira: latinoamerikarra (%38,3), Europar Bata-sunekoak eta kanpokoak (%24,6) eta Afrika iparraldekoak (%15,4).

Hirugarren hiruhilekoan **sinatutako kontratu kopuruari** dagokionez, EAEn kokatutako lanpostua duten 259.560 kontratu erregistratu dira (kontratututako pertsonak

baino 1,9 aldiz gehiago). Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, zifra hau ia egonkor mantendu da, %0,4ko jaitsierarekin.



Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Lan - kontratu motaren arabera, joera arruntak jarraitzen du: sinatutako kontratuen %8,0 kontratu mugaga-beak izan dira eta %92,0 aldi baterako kontratuak. Sinatutako kontratu guztietatik %39,5 kontratu partzialak izan dira (aurreko hiruhilekoan baino 0,4 puntu gehiago).

Lurralde Historikoei dagokienez, balore erlatiboetan, Bizkaia izan da jaitsiera handiena izan duen lurraldea kontratazioari dagokionez, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (-%2,5); jarraian, Araba (-%1,5). Gipuzkoa izan da kontratu kopuruan igoera izan duen Lurralde Historiko bakarra (+%3,9). Bizkaia izan da kontratu kopuru handiena izan duen lurraldea (%50,1; 130.030); jarraian, Gipuzkoa (%30,5; 79.063) eta Araba (%19,4; 50.467).

Jarduera Ekonomikoei dagokienez, hurrengoak izan dira kontratu kopuru gehien izan dituzten sektoreak: (i) ostalaritza (%16,5); (ii) manufaktura industria (%14,0); (iii) osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak (%11,8); (iv) merkataritza (%10,8); eta (v) administrazio jarduerak (%10,4). Gizonezkoen artean, gehien nabarmentzen den sektorea manufaktura industria da (%21,5) eta emakumezkoen artean ostalaritza (%20,3).

Okupazioa eta Langabezia, Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkestaren arabera (BJA)

Langabezia tasa %9,2koa izan da eta enplegu tasa %51,6koa

Aztertutako hiruhilekoan, EAeko enplegu tasa %51,6koa izan da 16 urte edo gehiagoko populazioaren artean (%56,6 gizonezkoen kasuan eta %47,1 emakumezkoen kasuan). Okupatu kopurua guztira 955.100ekoa izan da, aurreko hiruhilekoan baino 7.200 pertsona gehiago. Gizonezkoen kasuan, okupatu kopurua 502.500ekoa izan da (aurreko hiruhilekoan baino %0,7 gehiago) eta 452.600ekoa emakumezkoen kasuan (aurreko hiruhilekoan baino %0,8 gehiago).

Adinari dagokionez, enplegu tasa handiena 25-44 urte bitarteko taldeari dagokio (%82,6) 439.100 okupaturekin. Bestalde, enplegu tasa txikiena 16-24 urte bitarteko taldeari dagokio (%22,8) 39.400 okupaturekin. Hala ere, balore erlatiboetan eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, hirugarren hiruhilekoan eboluziorik onena izan duen taldea 16-24 urte bitartekoa izan da (+%7,1 aurreko hiruhilekoari dagokionez).

Lurralde Historikoei dagokionez, Araba izan da enplegu tasarik handiena izan duena (%53,3), jarraian Gipuzkoa (%53,1) eta Bizkaia (%50,3). Okupatu kopuruari dagokionez, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, igoerak hurrengoak izan dira: Bizkaian %0,9; Gipuzkoan %0,8 eta Araban %0,3.

Jarduera Ekonomikoari dagokionez, Zerbitzuen sektorea izan da okupatu gehien izan duena (%72,3). Ondoren, Industria sektorea (%21,2), Eraikuntza sektorea (%5,4) eta Lehen sektorea (%1,1).

Kontratu motari dagokionez, soldatapekoen %68,2k kontratu mugagabeak – finkoak izan dituzte Euskadin eta %31,8k aldi baterako kontratuak. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, kontratu mugagabe - finkoen kopurua %0,6 igo da eta aldi baterako kontratuen kopurua %1,9. Kontratuen partzialtasunari dagokionez, kontratuen %81,9 lanaldi osokoak izan dira (aurreko hiruhilekoan baino 0,6 puntu gehiago) eta %18,1 lanaldi partzialekoak.

Hirugarren hiruhilekoan, EAeko langabezia tasa %9,2koa izan da (%8,6 gizonezkoen artean eta %9,9 emakumezkoen artean). Langabetu kopurua 97.100 pertsonakoa izan da, aurreko hiruhilekoan baino %3,2 gutxiago. Emakumezkoen kasuan jaitsiera 2.600 pertsonakoa izan da eta gizonezkoen kasuan jaitsiera 400 pertsonakoa izan da.

Adinari dagokionez, langabezia tasarik baxuena 45 urte edo gehiagoko taldeari dagokio (%8,1); jarraian 25-44 urte bitarteko taldea (%9,4) eta 16-24 urte bitarteko taldea (%20,1). Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eboluziorik onena izan duen taldea, balore erlatiboetan, 45 urte edo gehiagokoena izan da %6,9ko jaitsierarekin.

Lurralde Historikoei dagokionez, Gipuzkoan izan da langabezia tasarik baxuena (%7,0), jarraian Araban (%10,2) eta Bizkaian (%10,4). Langabetu kopurua Bizkaian baxuena jaitsi da (-%8,1); Gipuzkoan eta Araban igoerak eman dira (+%4,8 eta +%4,4, hurrenez hurren).

Langabeziaren iraupenari dagokionez, langabetuen %49,4k urte bat baino gutxiago darama langabezi egoeran eta %50,6k urte bat baino gehiago darama egoera horretan (aurreko hiruhilekoan baino 0,9 puntu gutxiago).

Ikasketa – mailaren arabera, Estatistikako Institutu Nazionalaren - EIN - arabera (Biztanleria Jardueraren Arabera, BJA, sailkatzeko datuak ez daude eskuragarri) langabetuen %43k derrigorrezko ikasketak ditu eta %32k unibertsitate ikasketak. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Batxilergo ikasketak dituen taldea izan da langabetu kopuruan jaitsiera izan duen bakarra (-3.375). Beste talde guztietan, langabetu kopurua igo egin da.

Jatorriari dagokionez, EINren datuen arabera (Biztanleria Jardueraren Arabera, BJA, sailkatzeko datuak ez daude eskuragarri), langabetuen %76,2 bertakoak dira. Jarraian, Europar Batasunetik kanpoko nazionalitatea duten langabetu atzerriarrak (%22,5) eta Europar Batasunekoak (%1,3).